


MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktua nori bideratuta dagoen azalduko dugu atal honetan; bezero segmentua mugatuko dugu, noren beharrak asetzen dituen kontuan hartuta.



Gure produktua erosiko duten bezero potentziales, hainbat ezaugarri beteko dituzte, horien barne, adin jakin bat edukitzea izango da (15-25 urte). Bestalde, zaletasunei dagokienez, teknologiaren bidez beraien egunerokotasunean toki publikoetan musika entzutea gustatzen zaienak izango dira. Bizilekua ere kontuan hartuko dugu (estatu Espainiarraren barne bizi beharko dira) eta azkenik erdi mailako estatu soziala dutenak izango dira. Hau ondoren zehaztasun gehiagoz azalduko dugu.

Lehenik eta behin, gure produktua 15-25 urteko musikazale gazteei bideratuta dago, izan ere, multzo hau da kabledun aurikularren erabilera gehien areagotzen dutenak; aurikularrak musika entzuteko tresna oso erosoak direnez, nerabeek asko erabiltzen dituzte eta "AUKA"-ren bidez, askoz gehiago erraztu dezakegu hori. Honekin batera, aurikular mota hauek denbora luzez erabiltzen dituztenei daude zuzenduta; esate baterako, trenean, autobusean, kirola egiten daudenean eta hainbat toki publikotan erabiltzen dituzten pertsonak. 15-25 urteko gazteei bideratuta egon arren, edonork erosi dezake gure aurikular kaxa, zeini zuzenduta dauden esateak ez dielako besteei erosteko aukera kentzen.

Gure produktua erdi-mailako biztanleriari zuzenduta dagoenez, prezio baxua izango du; izan ere, edonork erosteko modukoa izatea nahi dugu. Aurrikular eta kaxaren prezioa 8€-koa izango da.

Bestalde, gure merkatu segmentua bereiziko duen beste puntu bat, desordenatuak izatea izan daiteke, hau da, aurikularrak edonon eta edonola gordetzen dituzten pertsonen multzoa. Hauek, guk proposatutako arazoa eduki izan dezaketelako, eta gure produktuari esker, edonon sartzen badituzte, ez direla korapilatuko jakingo dute behintzat. Honekin batera, aurikularrak modu egokian gordetzeko pazientziarik ez dutenentzat erabilgarria izan daiteke; botoi bat sakatu eta listo.

Azkenik, salmentari dagokionez, Espainia-mailan salduko dugu gure produktua hasiera batean, beraz Espainian bizi direnek soilik erosi ahalko dute. Hau, aduanekin arazorik ez edukitzeko eta hasiera batean muga batzuk jartzeko da, bestela negoziak eskuetatik joango zaigulako.